



Pozik itzuli da Nisune Artedrama topaketetatik. Jaizki FONTANEDA | FOKU

infraganti JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL

Kazetaritzan 20 urtez jardun ondoren, irakaskuntzan saiatu ostean, enplegua erregulatzeko espediente batek kalean utzi eta gero, gordean zuen gogoa agertu eta antzerkiari heldu zion osoki. Nisune da, Josune Velez de Mendizabalek idatzitako «Oingoan bai» obraren antzezlea. Hurrengo hitzordua, Gasteizko Zabalganen, maiatzaren 13an.

Bizitzak hainbat aukera ematen dizkigu», dio Josune Velez de Mendizabal aktore gasteiztarak. Aukera horiei heltzen jakin beharra dago, ordea, eta berak badakiela erakutsi du, ika-

si egin duelako. Duela urte bi Artedrama Arte Eszenikoen Plataformaren topaketetan egon zen ikasle, eta aurten ez zutela ikasle gisa nahi esan zioten, aktore gisa baizik. Pozik, oso pozik itzuli zen Aulestitik hilaren ha-

sieran, «Oingoan bai» lana antzeztu ostean. Berak idatzitako obra horren hazia Baratza aretoko Zurrumbilo euskal sortzaileen gunearen lehen edizioan aurkeztu zuen. Asteburu hone-tan bere hirugarren edizioa egi-ten ari den jaialdiak euskarazko mikroantzerki piezak aurkezte-ko aukera eskaini ohi du, eta, Jo-sunek, «momentua huraxe zela iritzita», 15 minutuko pieza era-man zuen duela bi urte. Ondo-ren, Baratzak eman zion beka baliatuta, mikroantzerki hura garatu egin zuen, 42 minutuko obra bihurtu arte.

NISUNE

«Oingoan bai» ez da monologo bat, pertsona bakarreko antzerkia baizik, Josune Nisune bihurtzen denean antzezteko sortua. Mundua bizilagun baten begien bidez ezagutzen duen emaku-me baten istorioa da, eta dagoe-neko hamar bat bider antzeztu du.

EAT Eszena Arte Tailerrean bi urte eman zituen Josunek. Mu-sika-antzerkia egiten hasi zen, astean egun batez, eta Hannah Welhanekin ingelesezko antzerkia. Ondoren, aktore prestakun-tzari ekin zion, hiru ordu arratsaldero, goizez irrastian lan egiten baitzuen. Baratza aretoa ireki zutenean, hara jo zuen. Bertan, dioenez, testuari baino gorputzari gehiago errepara-tzen diote, sorkuntza prozesua gorputzetik hasten da, eta oso aberasgarria iruditzen zaio bi bideak uztartzea.

Iaz, berriz, EHUn aktore pres-takuntzako Titulu Propioa atera zuen Josunek. Horrez gain, Frantziako eskola batean, Ene-ritz Artetxerekin, Pablo Ibarlu-zearekin, Euskal Herriko pisuz-ko zuzendari, dramaturgo eta aktore askoren ikastaroetan, Ba-ratzan... jarraitu du etengabeko prestakuntza.

Antzerkiarekin izan zuen le-hen harremana 18 urte zituela izan zen, unibertsitatera sartu zen udan. Hilabeteko esperien-tzia. Eta pentsatu zuen hori «*hobby* bat baino ez» zela. Ez zuen imajinatu ere egin hoge-i urteren buruan gordean eduki zuen gogo hori atzera berriro agertuko zitzaienik. Baina ordu arte egindako lan guztietan «beste zerbait» falta zuela naba-ritzen zuela dio.

Lehenago, ibilbide luzea egin zuen kazetaritzan. Ikasketak bukatu eta berehala hasi zen la-nean, bekadun, garai hartako «Periódico de Álava» egunka-ran. Ondoren GARAKo Kultura sailean sei urte eman zituen, eta GEU Elkartean kultur ekin-tzak antolatzen eta elkartearen aldizkarian kazetari. «Betiere, kultura munduan». Euskadi Irratian, ordezkapen bat egiten hasi eta zortzi bat urtez luzatu-ko zitzaien egonaldia. Denbora horretan eszedentzia bat tarte-katu zuen, ordea. Eitb.eus ata-rarian lan egiten zuen garaian izan zen.

Bilbora joan behar zuen egu-nero eta hiri hari «etekin han-diagoa» ateratzearren, goizez lan egiten zuen eta arratsalde-z Irakasle Eskolan ikasi. Bi urteko eszedentzia eskatu zuen, bat ka-rrera bukatzeko, Erasmus Pro-gramarekin Austria eta Londre-sera joan baitzen, eta bigarrena irakaskuntzan proba egiteko. Hala ere, itzuli zenerako krisia-ren gordina nabaritzen hasia zen eta urte hartan ez zioten es-kolak emateko deitu. Umeen-tzako eskolaz kanpoko jardue-rak eta ingeles eskolak eman zituen, baina ez zuen irakas-kuntza arautuan probarik egite-ko aukerarik izan. Irratira itzuli eta enplegua erregulatzeko es-pediente batek harrapatu eta kalera bota zuen. Kalera, edo antzerkira bete-betea, orduan,



Aurten ate asko zabalik topatu ditu Josune Velez de Mendizabalek eta horrek antzerkiaren munduan aurrera egiteko aukera duela sinetsarazi dio. Jaizki FONTANEDA | FOKU

EiTBko ordezkapenei eutsi beharrean, antzerkiari aukera ematea erabaki baitzuen.

KOMUNIKAZIOA HELBURU

«Baten batek pentsa lezake kazetaritzak, irakaskuntzak eta antzerkiak elkarrekin zerikusirik ez daukatela, baina nik uste dut baietz; azken batean, hiruren helburua komunikazioa da-eta», dio Josunek. Pertsonaia bihurtu eta pertsona desberdinak izateko aukeraz gainera, antzerkiak emozioak transmititzeko aukera ematen duela dio. «Transmisio horrek zenbait tresna dauzka, eta, batzuetan, hitzez iristen ez dena, gorputzaren bidez iristen da».

Josunek ez du umeentzako antzerkirik egiten; hala ere, umeek bere lana oso modu onean hartu dutela ohartu da. Au-

lestiko aretoan ume asko ikusita, aspertu eta builaka hasiko ziren beldur atera zen agertokira, baina ez zen halakorik gertatu. Isilik eta arretatsu egon ziren, zer gertatuko zain. Oso kontuan hartzen du publikoaren erantzuna, baita eskertu ere, lana osatu arte zalantza asko argitzen dizkiolako, eta erantzun horren arabera zenbait gauza aldatuz joaten da.

Baratzan ikasle zela, Parasite Kolektiboak azaroan Nazioarteko Antzerki Jaialdian estreinatu zuen «Jokoa» obran parte har-

Duela bi urte 15 minutuko mikroantzerki bat aurkeztu zuen Baratz aretoko Zurrunbilo jaialdian, eta, ondoren, garatu egin zuen, «Oingoan bai» 42 minutuko obra bihurtu arte

«Baten batek pentsa lezake kazetaritzak, irakaskuntzak eta antzerkiak elkarrekin zerikusirik ez daukatela, baina nik uste dut baietz, hiruren helburua komunikazioa da-eta»

tzea eskaini zioten. «Kristoren oparia izan zen». Eta talde horrekin jarraitzen du obra hori antzeztzen. Baratzako banaketa edo zabalpen lanez ere ardura-

tzen da. Etxean sentitzen da, «familia polita ikusten dut hemen». Parasite Kolektiboaren ondoan profesionaltasunerako bidea har dezakeela uste du. Hala-ber, Pez Limbo taldean

ere badihardu, komunikazioan. Ate asko zabalik topatu ditu aurten, eta horrek sinetsarazi dio baduela aukera mundu horretan aurrera egiteko.

«Oingoan bai» obra «barrutik» atera zitzaion, «euskaraz». Koherentzia eta konbentzimentu puntu batekin. Jende askok galdetzen dio euskaraz bakarrik egiten duen, eta berak pentsatu ohi du gazteleraz bakarrik baltitz, galdetuko ote lioketen euskaraz ez al duen egiten. Edonola ere, dioenez, euskaraz ez dakien batek ere ulertzeko moduko lana da. Izan ere, bere erronka, «emozioak komunikatzea» da.

Josunek aspaldiko harremana izan du futbolarekin, edo futbolariarekin. Haren aita Alaveseko jokalaria izan zen. «Aitari ez diogu hainbesteko garrantzirik ematen, beharbada garaiaiatik. Orain futbola guztion ahotan dago... eta igual horregatik ez zait asko gustatzen, enpresa handi bat da, guztiz neurritz kanpoko ikono batzuk, mito batzuk saltzen dituen». Ezagunagoa da, ordea, haren neba Iñigo, besteak beste Eibarko eta Athleticen jokalaria izandakoa. Txikitant Gasteizko Aurreran hasi zela gogoratzen du Josunek, eta garai hura du gogokoagoa, behoko kategorietako futbola, bera ere partiduetara joaten zenekoa. Josune Bilbon zegoen neba Athleticen zegoenean, eta han sumatu zuen Bilbok daukan zaletasuna eta konturatu zen zernolako presiopean bizi behar duten jokalariek. Inoiz San Mamesera joan zen neba ikustera eta bertan pentsatu zuen bera ezingo litzatekeela zelaian egon; «hori bertsolariak ikustean ere gertatzen zait». Argi du futbolarekiko harremanak txikitako oroitzapenak direla.

Maiatzaren 13an Nisune Gasteizko Zabalganako gizarte etxean izango da, Auzo Eszena programak gonbidatuta. Ez dugu lehenago ikusteko aukerarik izan, baina, «Oingoan bai». •

Xabier Izaga Gonzalez